

## Ayudas económicas para empresas

Los ayuntamientos de Andoain, Lasarte-Oria, Hernani, Usurbil, Urnieta y Astigarraga ofrecen ayudas económicas a las empresas que tomen medidas para incrementar su uso de euskera. Además, Ofrecen un diagnóstico gratuito de necesidades lingüísticas para cada empresa. Para más información, acude a tu Servicio Municipal de Euskera o envía un e-mail a [karmele@emun.com](mailto:karmele@emun.com).



## Usurbilgo kutzazaina eta euskara

Laboral Kutxak azterketa egin du ikusteko bere Kutzazain zenbat erabiltzen den euskara. Hego Euskal Herriko bere bulego sarean instalatuta dituen kutzazain automatikoetan bezeroek eragiketak zein hizkuntzetan egiten duten aztertu dute eta rankinga osatu dute. Euskara gehien Antzuolako kutzazainean erabiltzen da eta bigarren postuan dago Usurbilgo kutzazaina. Laboral Kutxako bezero diren usurbildarren %44k egiten ditu eragiketak euskaraz.



## “Planari esker euskara gehiago erabiltzen dugu”

Usurbilgo V.Luzuriagako Jon Erdoziak eta Nekane Aramendik euskara planaren balorazioa egin dute

### Zein da euskara planak egindako ibilbidea zuen enpresan?

V.Luzuriaga-Usurbil S.A. Arrasateko Fagor Ederlan Kooperatibak erosi ondoren, 2006tik daukagu martxan euskara plana, Emun aholkularitzaren laguntzarekin. Hasieratik Ederlango euskara planari oso lotuta egon da gurea. Ingurune euskaldunean kokatuta baldin badago ere (Usurbilen), langile gehienen jatorria Erreterria, Irun eta Pasaian dago eta erdaldu kopurua ez da txikia. Gainera euskaldunek ere gaztelaniaz aritzeko ohitura oso handia izan dute betidanik. Halere, azken urteotan langile gazte asko sartu dira eta hein handi batean ezagutza igo egin da. Aitortu behar da euskara plana daukagunetik euskaldunen artean erabilera nabarmen igo dela.

### Zeintzuk izan dira zuen lorpenak?

2007an Ederlanek Hizkuntza Politika onartu zuen eta Luzuriagan ere martxan jartzeak euskararen inguruko helburuak sistematizatzea eta orokortzea ekarri zuen, norabide bateratu bat izatea, alegia. Hasieran euskara ez zen lan hizkuntza eta ez zuen apenas presentziarik ez bileretan eta ez dokumentazioan. Gaur egun hainbat bileretan euskararen presentzia handitu da eta euskaldunen proportzioa ere bai. Bestetik, azken urteetan euskara planaren eta helburuaren difusioa egin da eta jendeak helburu hori badagoela badaki. Planaren zabalkundea handia izan da eta jendearen parte hartzea eta jarrera positiboa da.



### Zer daukazu egiteko epe laburrera?

Hemendik aurrera difusioa zabalagoa egitea da helburuetariko bat, eta enpresako parte hartzea handitzea euskara planaren helburuetan. Bestetik, euskarako helburuak enpresako sail edo departamentu desberdinetako helburuetan eta prozesuetan txertatzea litzateke egokiena eta bide horretatik jo nahi dugu aurrera begira.


### Zein gomendio emango zenikete Buruntzaldeko enpresei?

Enpresa euskaldundu nahi badute euskara plana martxan jartzera animatuko nitzuke, gurean horrek eman baitzigu euskararekin lehen urratsak emateko aukera. Bestetik, eta enpresa euskalduntzeko prozesuan langileen hautaketak garrantzi handia du, eta ezagutza maila hasieratik ziurtatuta egotea oinarritzkoa da.

## Buruntzaldeko webgune eredugarriak: Aizpurua Autobusak

Usurbilgo enpresak webgunea berri du eta euskarari leku nabarmena eskaini dio

Usurbilen kokatuta dagoen Aizpurua Autobusak enpresak webgune korporatiboa berri du eta diseinu erakargarriekin euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ematen du enpresari buruzko informazioa. Interneteko nabigatzailearen lehen hizkuntza euskara baldin badaukazu Aizpurua Autobusak-en webgunearen lehen orria euskaraz azalduko zaizu.



Enpresaren ezaugarriak eta zerbitzuei buruzko informazioaz harago, kontratatu nahi duzun zerbitzuari dagokion aurrekontua egiteko formularioa ere eskuragarri jarri dute.

Bezero eta bezerogaiekiko komunikazioa indartzeko Facebook sare sozialean ere badute profila (hor ere euskararen erabilera lehenesten dute) eta Flickr ere badarabilte autobusen irudiak zabaltzeko.

